

Iraultza txikien akanpada

ndarberrietua ateratzen zara horrela-ko esperientzietatik. Guztiz. Zubietan (Gipuzkoa) bildutako 400dik gora lagunek ez dugu erraz ahaztuko aste-buru eguzkitsu horren trebakuntza. Lurralde Askearen lagunek prestatutako agendak maisuki bildu ditu herri mugimenduen kolore anitzak, tamaina guztiak eta nortasun politiko osagarriak. Dudarik gabe, gure buruek eta gure bihotzek lurrikaratxo zirraragarri bat sentitu dute joan den aste-bukae-ran eta emaitzak ikusiko dira. Hurrengo hiru kontzeptuen arteko harremana azalduz, bertan gertatutakoaren nire aburua eman nahi dizuet.

Pertsonak. Abiapuntua eta helmuga garena baieztatu da Zubietan. Erdiguan beti egon behar den elementua. Gatazken dinamika konplexuen gainetik eta helburu askatzaile, berdintzaile eta iraultzaileen azpitik, norbanakoak gara bizitza ona, "bizitza merezi duen bizitza" horren protagonistak. Gu gabe ez dago komunitate ezta kolektibitate-rik. Norbanakoak gara aldaketa guztien motorrak eta hartzaileak. Humanismo berria dugu iparra.

Gatazkak. Asko dira Euskal Herrian martxan diren herri taldeen kanpainak eta gatazka sozio-politikoak. Lin Yutang idazle kristau-txinarrak esan



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Gatazkak ez dira jomuga, tresnak baizik, gure indarrak neurtzeko eta gure mugak ezagutzeko

omen zuen: "Gatazkak beti existitzen dira. Ez saiatu horiek saihesten baizik eta ulertzen". Gatazkak ez dira jomuga, tresnak baizik, gure indarrak neurtzeko eta gure mugak ezagutzeko. Feminismoak ongi erakutsi digu beldurrak eta zaugarritasunak ezinbestekoak direla, ezin ditugula ukatu eta presente edukiz gero gure borrokak sendatuko direla. Gatazka prozesu guztietatik ikas daiteke, irabaziz zein galduz.

Utopia. Azken urteotako aldaketa berriek nahastu egiten gaituzte. Gure

arerioen hegemonia nabarmena da eta ez dakigu kapitalismotik harago zer etorriko ote den. Gure praktika interseksional eta multikoloreak, teoria "hibrido" baten beharra du, kontraesan sozio-ekonomiko materialek eta naturaren mugek, zapalketa sexual eta arrazistek zein erabakitze eskubide politikoak, *corpus* teoriko berri baten beharra dute, trantsiziorako bidean ardatzak edo itsasargiak bidean izateko. Nik horri ekofeminismo sozialista deitzen diot. Idatzi gabe, baina idaztekoan dagoen ideologia utopiko berria. Bai, utopiko diot, ez mitologikoa edo metafisikoa. Pruden Gartzia zioenez: "Utopiak begiratu, aztertu, baloratu, zatikatu, elkarrizketatu, negoziatu, konpartitu egiten dira, azken batean lortu egin baitaitezke".

Igande arratsaldean helikopteroak eta Ertzaintza Zubietako gotorleku toxikoaren eraikuntza defendatzera etorri zirenean, aurreko bi egun eta erditan hitz egindakoaren zailtasun praktikoak gogora ekarri zizkigun. Boterearen irudi plastiko bortitza eta zurrumba ikaragarria bidali zizkigun gure utopiak ezabatzeko intentzioaz. Periko Solabarria borrokalaria nekazinararen leloa etorri zitzaidan burura: "Ez badigute amesten uzten, ez diegu lo egiten lagako". ■

40 urte

Gabriel Aresti

euskaltegia*

euskaltegia baino gehiago

www.gabrielaresti.eus

MATRIKULA ZABALIK!



Praktikoa

Lehenengo egunetik mintzamina lantzen

Azterketak gainditzen lagunduko dizugu

Emaitzak zure errittora



Giro atseginean

Beti laguntzeko prest

